



54. zenbakia

KELER

Orio eta Aiako alduzkarria

• 1996ko Iraila

ALIRON

ZENBAT balio du KARKARAK



Gure aldi zahararen diru-kantua eta gauza edo diru publikoaren iturria (*Diputazioa eta Eusko Jaurlaritza*) eten arida piskana-piskana: gero eta herri-aldi zahari gehiago dago Euskal Herrian eta aurrekontuak ez dira igo azken urteetan. Ondorkuren hurbilean, gainera, ez dirudi egoera kubeteko bidea hartuko doenik.

Hori horrela dela-eta, diru-norri alternatiboak aurkitu behar ditugu, eurrera egon nahi badugu. Alderkeria salgai jartzea eta lanetako aukerabat, jendeak proposatu diguna, baina guk ekan hamatsen segitu nahi dugu, tirada partisibehar exizatuko.

Gure buruari galdera hauego druga zeobat halio du Karkarak gure ikur herrikoia? Zerbait ordainduko pres-

aldaude —pres al zaude te?— urain arte doan, jasotako produktu lehengo trubet?

Bai eta uste dugu. Alegia, zortakoa batzuk pres zaude tola bantdateko batez mateko Karkarako (*urteko 2.500 pta, komparazio baterako*), gure lanarekin segitu dezagun.

Karkarakaren laguntzailea izan nahi duzenek horretarako aukera izango ditzue datorren zenbakirik eurrera Alderkeriaren batera txartel bat banatzeko dugu. Nik ere Karkarakaren laguntzailea izan nahi du? Testigarriko. Txartela sien datuekin bete eta giri entzutegeari besterik ez ditzue omen beharko.

Karkara Jardua

TALAI
AHOLKULARIAK, S. L.
ASESORIA:

FISKALA, LABORALA
JURIDIKOA, KONTABLEA,
DIRUA AURREZTEKO

Iñaki Olariaga Larrañaga

Eusko Gudari, 50-B, 1.E Telefaxa: 13 37 20

**MAPFRE
ASEGURUAK**

- ✓ Osasun laguntza
- ✓ Etxeak erosteko finantziazioa
- ✓ Inbertsio fondoak
- ✓ Jubilazio planak



GIZONEZKOENTZAT
ILEAPAINDEGIA

☎ 13 47 29

Henko Plaza I
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
1.200 ale

Zuzendaria
Miren Etxeberria

Erredakzio-taldea
Miren Etxeberria, Olatz Garido, Jakes Goikoetxea, Ana G. de Txabarri, Ana Iturain, Paki Iturain, Nere Manterola, Almara Peña, Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa
Eli Lasa

Publizitatea
Miren Etxeberria

Kolaboratzaleak
Jose Miguel Leunda, Juan Carlos Zuloaga, Salabio Abesbatza

Argazkiak
Ana G. de Txabarri

Azken orrialdeko marrakia
Urko Esnal

Banatzalea
Miguel Angel Sanz

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Ornat)

4 GUTUNAK

5 **HERRIAN GALDEZKA** Kanpolarrek parkina ordaindu behar al dute?

6 HERRIKO KONTUAK

11 KIROLAK

14 **IRITZIA** Jose Miguel Leunda

15 AIAKO KARKARA

ERREPORTAJEA Berriketa lanak kasko historikoan

19 **GAIA** Aliron, Aliron

22 ELKARRIZKETA Demetrio Esnaola

24 **DENETIK PIXKA BAT**

29 **KOLABORAZIOA** Salatxo abesbatza

30 AZKENA

1996KO PUBLIZITATE-PREZIOAK

Modulo bat.....	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa.....	27.000 PTA

Prezio hauak zenbaki baterako
balio dute. Publizitatea urteko
zenbaki guztietan jarri nahi dutenei
% 10eko deskontua egingo diegu
prezio hauen gainean (urtean
hamar zenbaki argitaratzen
ditugu).



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Aupa Orio! Aupa ... Jauna!

Iazko urrian KARKARAn hanelako goraipamenak egiten zitzazikidean traineruko mutilei: "1995: aspaldiko urterik onena arraunean. Hanabi bandera izan dira 'Karpa'-rentzat. Arraunzaleok 70eko urteetan ezagutzen ez genuen pozez gainezkako giroa izan dugu herrian".

Bestalde, Luciano Manterola arraunlari ohiak honakoa esan zuen: "Aurtengo kuadrila oso ona da, baina jarraipena eman behar zaio".

Horrexegatik, hain zuzen, kuadrilak segitu duelako, ekarri dute aurten Kontxako bandera. Jarrai dezatela horrela urre askotan: taldea elkartuta eta orain arte bezalaxe lanean. Zeren, arraunlari baten postua betetzea askosaz errazagoa baita, mutilei arraunean erakutsi eta zuzendu egiten duena ordezkatzea baina. Bai, alajalna! Hau edonork ondotxo daki. Inork ez du saltzen daukan onena, berarentzat gordetzen du. Alfer-alferrrik da ura joan eta gero presa egitea.

Eta itzal ospatutakoa: aurreko lau urteetan trainueruetan 100 bandera irabazi izana, ez zen kasualitatez izan, ez. Zeren, aurrelik, noraezean eta ta ondoa jota genbiltzan Arraun Elkartea eta arraunzaleok. Baina pertsona baten etorrerarekin, denok berpiztu ginen. Eta hor dago trailaren zortziko gure herriko giro aparta. Jendea gainera, gizon horren izena

goraipatzten eta txalo zaparrada berari eskaimita. Jakina, soinuak ez du jotzen beti guztion gusturako. Horrexegatik, munduan hamaika kolore daudie norberak bere gustokoena aukeratzeko. Beraz, esaten den bezala: "... herria zurekin! Eta eutsi goiar!"

EUKEN SANTAMARIA

Arraunlariei

Lenengo igandeian
latz estropa jira
Tiran hamar segundoz
atzetik begira
San Pedrori hamalau
ametsan dir-dira
bigarren igandeian
ikurrinha herrira.

Aurreko estropetan
ginan gu lsildu
San Pedrok beregan
ikurriñak bildu
harro ziraden baina
Donostiarri galdu
egurra latza hartuta
beharko unildu.

Patreia zarauztarra
aurtengua dala
gorputz telzia baina
etzera makala
sinistru zazu "Txiki"
haurdinera zerala
patronian ta jarraitu
gaurdaino bezala.

Habilidatz lendikan
orain legekuak
gera oriotarrak
maila haundikuak
aurtengo untzian berri
jaunak nolakuak
sekula izan ote
sasoi hobekuak.

"Korta" maitearentzat
degu bertso berau
zututumurtuak dabiltz
horrek kezkatzen nau
lana egiten dezu
gogor egun ta gau
zu gabe gure Oriok
garaipenez barau.

Zu itzuli zifianen
genduan atsegir
zu behar zatugunez
etzazu aldegin
nor da zure pareko
gaur kostoa Kantabrin
danen maitu zerata
jarraitu hemen fin.

EUSEBIO LASARTE



Karkarak eta bere gain harteren aldiakarien
alderagatiko esanen edota intzilen erantzun
kizmik

Karkaran argitaratutakoan berritan duteke
mordik edo zintika, bildin eta ihurria argazken
badia

Karkurrik bere eztien da eskuutzarak laburteko
eskubidea



HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, Z/G

TEL. 83 47 04

20810 ORIO

Herritarrek lehentasuna izango dute

96/97 ikasturtean ordezka-
penak egiteko lan poltsa
bat osatu nahi dugu.

BALDINTZAK:

Magisteritza edota
Lizentziatura.
EGA edo baliokidea.



Izan zaitez Orio
EHKO partaide

**ORIOKO EUSKAL
HERRIAN EUSKARAZ**

Telfnoa: 83 14 07
(Eli)
46 66 50

Kanpotarrek parkina ordaindu behar al dute?

Orioko hondartzara joan nahi duen edozein kanpotarrek, zubi azpian izaten diren langileei dirua eman behar izaten die, kotxea aparkatzeagatik. Prezioak ondo al daude parkinak eskeintzen duena ikusita?

Udalak irabazirk ateratzen al du?



M. EUGENIA ETXANIZ

33 urte

Nin ondo inuditzen zait parkina ordaintza. Ordaintzen den prezioagatik egin guztian kotxea zanduta duzu. Donostian abantaila horiekintzitik gehiago ordaindu beharko zenike.

Bentalde, udalak irabaziren bat ateratzen beharra du, urtero urtero langile batzuk hor lanean jartzeko.



AGUSTÍN MUJICA

25 urte

Nin ondo inuditzen zait parkinagatik, zerbait ordainztea. Zeren kanpotar hauek plaea inguruaren zaiborra uzten dute. Gainera, batzuentzat prezioa garestiago jarriko nuke ez dutelako ingurunea batere emespetatzen. Udalak zerbait irabazko du hortik, eguraldiak lagunduz gero behintzat.

LUIS GOZATEGI

51 urte

Ondo inuditzen zait plaiako parkina ordaintza, beste herrietan ere ordaintzen baita. Prezioa ere ondo dago, nahiz eta agian batzuentzat gubikio izan ekartzen dituzten traste pilagatik. Baina zerbait hartzera bakarrak joaten direnentzako ez dago batere ondo.

Udalak zerbait aterako du, hori biltzen diren langileentzako.



IZASKUN MANTEROLA

18 urte

Ondo inuditzen zait hondartzako parkina ordaintza, zeren kanpotar asko etortzen dira eta samtan hiru tamoi lekuak kentzen digutenez horren truke zerbait ordaindu behar dutela uste dute. Prezioa agian garestixoa da parkinaren egoera ikusita, baina udalak dirua ateratzen beharra du lanean arritzen diren langileak mantentzeko.



Orioko Ogia



**OLIDEN
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

PA
C
SO
KA
NE
T
O

*Haurrentzako
oinetakoak*

San Nikolas, 9 Ibaea
TFNOA: 83 28 05

LIZASO
**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Orio, Irala 3 Tfnoa: 83 10 96
Zarautz, Ipar 6 Tfnoa: 13 17 40

**URANGA
BURDINDEGIA**

EUSKO GUDARI, 7
TFNOA: 83 23 36

Aita Lertxundiren mendeurrenrenak Orio eta Chipiona elkartu zituen

47 oriotar joan ziren Chipionara abuztuan, hango ekitaldietan parte hartzen

Aurten, martxoaren
San, bete ziren 100
urte Aita Lertxundi
oriotarra hil zela.

Mende oso bat pasa
bada ere, bizi-bizirik
segitzeren du bere
oriotzpenak,
arrasto sakona utzi
baitzuen bizi izan-
dako lekuetan:
*Tangerren eta
Chipionan, batez
ere.*

Aurtengoa, beraz, os-
pakizunez betetako
urtea da. Lehenbizitz,
martxoan, jardunaldiak
antolatu ziren Tangerren; abuztuan,
berriz, Chipionan;
Santiago Konpostelakoan ere zerbaile egitekoan
dabiltza; eta aurtengo ospakizunak
bukatzeko, Orion, azaroan
izango dira ekitaldi batzuk.

CHIPIONAKO OMENALDIA

Tangerreko ome-
nezko ekitaldiei segi-
da emateko, Chipio-
nako frantziskotarrek
astebeteko jardunaldiak
antolatu zituzten
abuztuan, bertako
Udalaren laguntzarekin.
Jardunaldiak
abuztuaren 6an hast
eta 11n bukatu ziren
eta, bertan parte har-

tzeko 47 oriotar joan
ziren Chipionaraino.
Orioko Udalak anto-
latutako bildan. Han
ibili zen, besteak bes-
te, Ainara Peña kar-
karakidea ere.

Orioko espedizioak
frantziskotarrek Chi-
pionan duten atseden-
etxeen hartu zuen os-
tatu eta bertan zazpi
egun pasa zituen:
abuztuaren 5etik
12ra.

Atseden-etxea pri-
merako tokian zegoen:
hondartzatik berta-
bertara.

SEI EGUNeko PROGRAMA

Abuztuaren 6an,
astearte, eman zi-
tzalon hasiera sei eguneko
ekitaldi-programari: iluntzeko zortzi
eta erdieta (ekitaldi
gehienak ordu horretan
hasten ziren) El Padre Lerchundi y Ma-
rruecos liburuaren
aurkepena egin zen
eta Aita Lertxundiri
buruzko bideo bat ere
aurkeztu zen. Orain
Orioko udaltxean sal-
gai dagoena.

Segidan, frantzis-
kotarrek prestatutako
erakusketa inaugura-
tu zen.

Abuztuaren 7an
Gaspar Calvok hitzal-
dia eman zuen Aita
Lertxundiren bizitzari
buruz.

Abuztuaren 8an
Manuel Velázquez,

Chipionara
joandako
oriotarrak,
Aita
Lertxundiren
omenezko
monumen-
tuaren
surrean



Chipionako frantzis-
kotar gazteak, eskaini
zuen hitzaldia. Manuel
Velázquezek tesia egi-
na du Aita Lertxundiri
buruz, eta horixe aur-
keztu zuen.

Hitzaldi-saioekin
bukatzeko, abuztuaren
9an, Miguel Valle-
cillok hitz egin zuen,
Aita Lertxundik era-
kitako etxe eta
erakundeet buruz.

Larunbatean, abuz-
tuak 10, organo-kon-
certu bat eskainizuen
Angel Hortasek Re-

glako Santuarloan.
Ondoren, Chipionako
Udalak afari eder ba-
tura gonbidatu zituen
hemendik joandako
oriotar guztiak.

Programa amaitze-
ko, meza nagusia izan
zen santutegian abuz-
tuaren 11n, Sevillako
artapezpikuaren par-
tehartzearekin. Ondo-
ren, lore-eskaintza
egin zuten Orioko eta
Chipionako alkateek,
Aita Lertxundiren mo-
numentuaren au-
rrean.

GIRO EZIN HOBEA

Chipionan izan-
dako oriotarrak prime-
ran ibili dira eta ondo-
rio nagusi bat atera
dute: apena ez ezer
zekitela Aita Lertxundi-
ri buruz. Harritura
geratuzirengchenak,
oriotar handi hark
egindako berri jaso-
takoan.

Bestalde, han izan-
dako guztiak alpatzen
zuten oso giro ede-
rrean ibili direla eta
izugarri gustura buel-
tatu direla.

Kultur eskeintza zabala udan

Orioko Kultura eta Euskara batzordeak bultzatuta, kultur eskeintza zabala izan da uda honetan. Santiago Azurzaren omenezko organo kontzertuak erantzun ona izan zuen jendearen aldetik eta zer esanik ez artisautza erakusketa eta iparraldeko egunak. Ostiralean Jai programak ere, taberna aldetik baja batzuk izan zituen arren, jendearen artean erantzun ona izan du.

Nabarmenzekoan izan da, baita ere, Iñigo Manterola txagatarrak Pieno Aretoan jarritako pintura-erakusketa

Passport Scotch argazkiak Salatxon

Urtero Estatu Espainiarrean Passport Scotch whiskyak lehiaketa bat antolatzen du; 30 argazki izaten dira aukera-tuak, eta horietatik 15 daude Salatxon ikusgal.



Udaleku irekietako haurrek bikamio-take parke berdean.

Berlinen gose greban

Aingeru Andres, Ibai Esoain eta Aiako Antxon Gomez Berlinen izan dira gose greban "Euskal Presoak Euskal Herrira" ekartzeko eskatuz. Irailaren 12tik 18ra izan dira etxetik kanpo, horietatik bi egun bidaiatzan egin dituzte eta beste bostak, berriz, gose greban. Lehenengo gauean gertutik zaindu bazituzten ere ez dute arazorik izan.

Udaleku Irekiak eta Itxiak egin ziren udaran

Herriko umeak nahiz kanpokoak izan ditugu udara honetan gure kaleak alaitzen.

Herriko 95 haurrek bildu ziren Udaleku Irekietan uztaldean. Saloak egunero egiten ziren ikastolako lokaletan, goizko 09:00etatik 13:30ak bitartean. Urtero antolatu ohi dira Udaleku Irekiak, baina aurten inoz baino arrakasta handiagoa izan dute. Bederatzi begirale ibili dira hiru urtetik bederatzira arteko haurrek hauentzat jokoa prestatu eta ongi pasatzeko ahalegin guztiak egiten.

Ibaizaren beste aldean, Txurruako albergean, Udaleku Itxiak izan ziren, hiru txanda. Horietatik bi, Udaleku Ireklekin batera, Difilastak taldearen ardurapean izan ziren. Hirugarren txanda, berriz, Iñaki Carretero oriotarraren zuzendaritzapean antolatu zen.

Udaleku Itxietako txanda bakoitzean Euskal Herriko 120 haurrek parte hartu dute.

Abuztuan jende gehien kanpinean

Udako hilabeterik eskasena, eguraldiari dagokionean behintzat, abuztua izan bada ere, kanpinean jende gehien ibili den hilabetea izan da. Kanpineko %90,95 bete da.

Aurreko urtearren konparatuz jende gutxixeago ibili da uda partean, batna ez da izan jetxiera nabarmenik.

Juantxo HARATEGIA

Telfonoa: 83 18 37

URAITZ LURRINDEGIA
KIROMASAIA ESTHETICIEN
ENDAIA, 3 TELNOA 83 18 97

Eugenio Garmendia

KONTSEILARITZA
Telfnoa: 83 44 66


ORRAZNERAK
TELNOA: 83 12 61

Gazteen-tzako prezio bereziak

SARASUA ERRETEGIA

**Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak**

Eusko Geduri, 29
Telfnoa: 83 00 05
13 25 32



Abuztuan izandako istiluei buruzko ezohiko plenoa

Abuztuaren 10ean gaueko hamabiak inguruaren herrian bi su barriskada izan ziren eta horren ondorioz zenbait istilu, 17an Aitor Lertxundiren autoa erre zuten eta Kutxari su eman.

Gauzak horrela. Alkateak ezohiko plenoa deitu zuen eta bi puntu hauek bozkatu zituzten:

1. Abuztuaren 11ko eta 17ko ganean Orion geriatutako ekintza biolentioak gaitzestea.

2. Orioko Udalak neurri legalak erabiltako ditu, gertatutako argitzen lagunizko eta etorkizunean, orion elkarbizitzia kalteku dezakeen edozein ekintza biolento indiskrimina tu ebitatzeko.

EAJ eta EAKoek aldeko bota eman zuten eta HBko zinegotziak ez zuten botorik eman. PSOEko zinegotzia ez zen Plenora agertu.

Arrantza portuaren aurkezpena Itsas Etxean

Arrantzaleen kofradiak eskatuta, arrantza portu bat eraikitzea omuragarria ote den edo ez jakiteko. SIADECOK txostenetan eta proiektua egina du. Lehen aurkezpena uztailaren 6an izan zen Itsas Etxean, eta bigarrena, Udaletxean izango da arrantzale guztiek lehorretatzen direnean.

Proiektuaren aurkezpenean esan zutenaren arabera, Orioko arrantzaleen produkzioak behera egin du azken hamar urteetan: %22 tzentrik %16 izatera jeitsi da. Txostenaren arabera, beherakada honen eragilerik nabarmenetako

bat, portu egoki bat ez izatea da. Hala ere, Orioko Itsas flota, produkzioaren garrantziari dagokionean, Gipuzkoako hirugarrena izaten jarraitzen du.

Arrantza portua eraikitzeko lekukik egokiena, hiru espigotak dauden tokia izango litzatekeela ere alpatu zen; honek beharrezkoak dituen zerbitzuekin; jela, gasoila (300.000 litroko bi deposito), ora, argindarra, arrain salmentarako lekua, untziak eta sareak konportatzeko lekua, autoen aparkalekua, arrantzarako tresnak gordetzeko lekua...

URBAZTER ASEGURUAK

San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14

- ▶ Transferentziak
- ▶ Lizentziak
- ▶ Eskriturak
- ▶ Penalak
- ▶ Errenta Aitorpenak
- ▶ Bidaiak, e.a.

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Teléfono: 83 06 09

Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tlfnoa: 13 07 73

ANARR /

kirola egiteko eta denbora librerako
arropa eta ekipamenduak
Tlfnoa: 83 21 60

A LTXERRI

Jatetxea

Teléfono: 83 07 62

Gora-beherak hondartzako etorkizunarekin

El Mundo egunkariak irailaren 2 eta 3an argitaratu zuenaren arabera PPK ez du dirurik emango hondartzako lanak egiteko epe labur eta ertainean.

Hala ere, Jose Miguel Makazaga alkateak ezeztatu egin zuen El Mundoko argitaratutakoa eta ziurtatu zuen obra horiek egin egingo direla laister.

Ikastolaren azken fitxajea

Iñaki Beraza, San Pedroko traineruko estriborreko kontranekoa, fitxatu du Orioko Ikastolak soinketa (gimnasia) irakasle.

Iaz Galiziako Meirakoen entrenatzaile ibili zen, eta aurten San Pedron aritu da berriz.

Lehendabiziko klase egunean 15 ikasle joan omen zitzatzikton, dotore-dotore, horiz jantzia.



Merkatarien fiskalitatea, eskaparatismoa eta elkarkidezko buruzko jardunaldiak egiten dira

Dendarien Elkartea sortu da

Kultura eta Ardatzako dendariek, negozioaren funtzionamentua hobetzeko somatzen zuten beharra, besteek ere ba ote zuten jakiteko, inuesta bat pasatu zuten herriko dendaren artean. Inuesta horren emaitzak aztertu eta gero, formazio beharra eta elkarlanean aritzeko gogoa badagoela ikusita, Dendarien Elkartea sortu da.

Elkarte honen helburua Orio komertzio aldetik herri erakargarria izatea da, beste helburu batzuen artean. Konkurrenzia akle hatera utzi eta elkarlanean arituko dira aurrerantzean.

Elkarte sortu eta berehala hasi dira lanean, gainera. Merkatoritzori buruzko I. Jardunaldi Teknikoak antolatu dituzte eta erantzuna ezin hobea izan da. Merkatarien fiskalitatea, eskaparatismoa eta elkarkidezka izan dituzte mintzagai irailaren 18tik urriaren 2ra arte.

Orioko EHeren deialdia

Urriaren 12an manifestazioa egingo da Denostian, Euskal Herrian Euskaraz-ek deituta. 17:30etan abiatuko da bulebarretik Euskal Herritik izan behar du, euskalduna eta libre lelopean.

Orioko EHEn bat egiten du manifestazioarekin eta detaldit zabala egin nahi die Euskal Herri euskaldun bat eraiki nahi duten herriko euskalitzale guztiak. Joan nahi duten oriotorrak 16:00etan azaldu besterik ez dute herriko plazan.

Fandango eta arin-arina

Harribil dantza-taldeak eta Musika Eskolak hiru hilabetezko ikastaroa antolatu dute, fandangoa eta arin-arina dantzan ikasi nahi dutenentzat.

Ikastaroaren prezioa 8.500 PTako da eta Musika Eskolan eman behar da izena.

ALUYOLA, S.L.

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,
BAINU MANPARAK.

P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

Fatima Azpiroz Ibarreta

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE

Telefona: 36 22 77



Telefona: 83 10 43



Ruttum

Balearen kalea, 2 tlfno: 83 38 04

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefona: 13 42 64

Udarako kronika

Aurtengo udara ere joan zaigu eta zerbaile bukatzenean horren balantzea egiteko dagoen ohiturak eragindako nik ere oriotarron udarako kronika egingo dut. Gehienontzat berriz Kontxako bandera irabazi zeneko udaratzango da 96ko, beraz orolmen gozoa izango dugu aurtengoaren. Hala ere, bat edo beste kerkatua somatu dut beste urte olinpiko bat iritsi arte itxoit beharko ote dugun berriz Kontxakoa trabazteko (92 Bartzelona, 96 Atlanta). Baino hori ez dago oraindik jakiterik. Jakin badakigu nia dia zer eguraldi kaskarra egin digun aurtengo udaran, aspaldi-aspaldiko txarrrena, galdeitu bestela Alanbrerori edo hondartza inguruan lan egin duen edozinei, edo hala ere arrakasta haundi samarrarekin Aiako hurretan kanpin berria zahaldu duten Zalduatarrorri. Gozategitarrek ez zuten bere udara arrakastatsu honetan eguraldi txarragoritzango iron. Boga-Bogak antolatuta Orioko hondartzan jo behar zutenean baino, Emanaldia bertan behera utzi behar izan zuten. Huraxe ekaitza mural

gotzien artean. Jorge Oteiza eta Manuel Lasarteren izenak proposatu duenik ere bada. Nik Ichiocho hau aprobetxatuz beste proposamen bat plazaratu nahi dut: zergatik ez Lertxundi izena jarri kultur etxeari? eta era horretan aspaldi hilka dagoen A. Lertxundirekin batera beste bi Lertxundi ere omendu, Benito eta Anjel. Biak bizi-bizirik eta bakotza bere alorrean, kantueta eta idatgen. Euskal Herriak ermandako artistarik haundi-dinetakoak.

Izenarenak bere garrantzitxoa baldin batu ere izanari erreparatu beharko dugu aurrerantzean, ea kultur etxe hori herri honek beharrezko duen kultur susperraldi baten abiagune bihurtzen den!

Hala ere kultur etxearen izenarenak ez die lan haundirik emango Orioko udal politikaren arduradunei: haundiagoa emango die, noski, hondartza inguruan oraintxe bertan hastekotan zituzten lan guztiak. Izan ere autopistaren Zubitik hondartzara bitarteko lurretan egitekoak duten egokizte lanerako diruak, lehen PSOEko gobernuak agindutakoak, ez omen dira Oriora iritsiko. PPko gobernuak horrela erabakita. Polita erronka Makazagak eta bestz 10 zinegotziak dantzatzen. Baino ez bakarra, zertan da haueskundeen aurretik ia denek agindutako autopistarako sarrera Orion? zer dago, ahaztuta? Beste gauza bat bizikletazale guztiak partetik: lanei ekin edo ez ekin, orain arte haino kasu gehiago egin hondartzara bizikletan joaten diren chundaka gazteei, aurtengo udan txirringak non lotu ere ez dute izan eta, automobilek DYaren kabinamino sartzeko eskubidea zuten bitartean, batzuk abiada osoan, gainera.

ISTILUAK ORION ETA AIAN

Euskal Herriko beste hainbat herrian aspaldi bizi dute kale borroka-edo, Orioko kaleetara ere iritsi da aurtengo udan; ondorioa: Kuxtan suetxoa bat eta gazte oriotar baten automobil zeharo kiskalita, dirudienetx, hanka-sartze batzen ondorioz, eta ezer gubirako bahio izan zuen Udal Pleno iskanbilatsu bat. Ezer onik ateratzekotan, komentzimendu bat, oriotarrok gehiago implikatu beharko genukeela batea ekarriko digun beharrezko elkarritzeta-prozesuan.

Aian ere hiru automobil kiskalita gelditu ziren herriko festetan, baina hangoa ganberro batzuen aholgabekeria baten ondorioz gertatu ote zen susmoa dute.

ARRANTZALEAK

Oriora jaitsita, berriz, bere lana behar bezala egiten arri dena itsaso aldera zaheldutako barra mifur berrita da, badirudi konpondu duela herriko arrantzaleek zeukan arazo endemiko-larri hori. Gainera, horrek eraginda-edo, aurtengo kanpaina oso ona izalera ari omen da, bat antxoetan, bat atunetan, ia arraunlaritza bezain ona. Arrantzal-Portua ere izango omen dugu laster. Problema da, batzuek diotenez, hori dena berandutxo ez ote zalon iritsiko Orioko herriari.

GOENKALE

Azken urteetan arrantzal-galdu duen fama Goenkaek ekarriko dio Oriari. Izan ere ETBren euskerazko sailork arrakastatsuena. Oriora etorri zaigu eta astero gure artean ditugu artista eta teknikoguztiak, tartean Iñaki Perununa, kaleko eszenak Orioko plazan eta karkaretan filmatzen.

Inaki ITURAIN

ERRUSTA
Kriston
bokadillok!!



KoastA
Lasaitasuna eta giro ona

Haur eta Gazteen futbito txapelketa

Orioko Jarraik abuztutik irailera jutbito txapelketa antolatu zuen. Bi kategoria izan ziren: Haurrena (10-14 urte) eta Gazteena (15-18 urte). Haurretan Txomin Arraindegia izan zen garaile, eta Bink bigarren. Gazteetan, berriz, Zumeta (atxeta (Usurbil)-koak) eta Pello Arraindegia. Irabazleek Kopa, txampaina eta pastak jaso zituzten.

Etxeberria-Miera txapeldun palan

Uztailaren 12tik abuztuaren 31ra III. pala motzeko udako txapelketa jokatu zen. Partidu guztiak ostiraletan jokatu ziren azkena izan zik. Finala Igandean zain zen eta Etxeberria-Mierak irabazi zuten. Bigarren, Garcia-Beldarrain geratu ziren.

Orioko preferente taldeko jokalariak



Abiatu da futboleko denboraldia

Futbolean aldiaketa nagusienak preferente taldean eman dira, lau mutil berri sartu baitira: Pedro Zulaika zumatarra, Garikoitz Aguado zaurtarra, Miguel Miera oriotarra eta Joseba Portularrumen usurbildarra. Gainontzeakoak: Joseba Manzisidor, Pello Pikabea, Iker Garmendia, Jon Abaurrea, Santos Agirre, Alberto Casado, Jaime Colado, Iben Huesca, Joseba Goikoetxea, Ramon Errasti, Iñigo Garmendia, Aitor Rubio, Iñigo Uranga, Andeka Atxaga, Rogelio Perez eta aurreko urtean jubileetari nritu ziren Jose Inazio Alguazil, Haritz Olaizola eta Aitor San Sebastian.

Jubileetan hauek jokatuuko dute: Haritz

Jauregi, Befiat Karrera, Miguel Angel Rivas, Imanol Esoain, Unai Eizagirre, Joseba Garrido, Astur Solabarrieta, Joseba Lertxundi, Asier de la Hoz, Gabriel Lopetegi, Franzisko Romo, Gorrika Arruti, Iñaki Zaidua, Asier Yeregi, Jose Mari Alguazil, Iñigo Aranguren, Anartz Aizpurua, Josu Garmendia, Josu Solabarrieta, Iñigo Izagirre eta Rafael Molinerrek. **Kadeteetan**, berriz, honako hauek izango ditugu: Ander Eizagirre, Jorge Pinto, Aitor Delso, Aitor Arregi, Gerka Larburu, Gogor Lertxundi, Mikel Palacios, Alex Ortega, Adan Oliden, Igor Laskibar, Unai Lertxundi, Iñaki Manzisidor, Iker Torre, Jon Padrones eta Franzisko Gonzalezek.

Shock!
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
Oto. 1 13 22 77 ORIO



ORTZAIZKA

JATETXEA

- * Bataioak * Despedidak
- * Jaunartzeak * Ezkontzak

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK
EGUNeko MENUA

83 00 44 / 13 20 26

Herniko plaza, 4

K2

**Jose Miguel Leunda
irabazle korrika
saloetan**

Ekainaren 15 eta 16an jokatutako Beterano mailako atletismoko Espainiako txapelketa irabazi zuen Jose Miguel Leunda oriotarrak.

Leundak abiadurako probetan lortu zuen urrezko domina.

Partaideak, guztira, 500etik gora izan ziren.

**Sarasua analak
arraunean
estropada ikustera**

Inazio Sarasua zenaren lau bilobak, Jon, Xabier, Josu eta Oier, arraunean Joan ziren Orio txapelketa batzuetan. Sarasua arraunean joan ziren Kontxako bigarren estropada ikustera.

Bi ordu eta laurden behar izan zituzten harako. Itzuli, berriz, lehenengo txakal bakarrik itzuli ziren arraunean.

Etortzeko hiru ordu behar izan zituzten.



Espainiako txapelketa prestatzen eman du uda Ibai Peñak

Ibai Peñak urea eta Iker Ostolazak brontzea

Judoko denboraldia ekaimean bukatu zen. Azaroaren 9 eta 10ean Espainiako Txapelketa jokatuko da. Ibai Peñak uda osoa entrenatzen pasa du, baina txapelketa batzuetan ere parte hartu du.

Frantzian eta Portugalen izan da, astebete leku bakoitzean, kontzentratuta. Egunean lau ordu eta erdi ematen zituzten entrenatzen eta oso gogorra izan dela esan digu Ibaik.

Abuztu osoan, kiroldegia ia gehienak ibixita zentela eta Urnieta Raino Joan dira entrenatzera Ibai eta Usurbilgo beste bi lagun. Irailean bi txapelketa jokatu ditu Ibai Peñak. Bata, irailaren 5ean Iruñean, 21 urte azpikoentzat eta, bertan, urea irabazi zuen. Bestea, Valladolidean, irailaren 21ean; San Mateo txapelketa deitzen zato eta seniorrentzako da. Ibai Peñak eta Iker Ostolazak brontzea lortu zuten, lehenengoak 60kg azpikoentzat, eta bigarrenak 86kg, azpikoentzat.

**Beste arraunari
oriotarrak**

Orioko traineruak baditu tostetan kamptuarrak: Txiki Zarauztarra, Anjel eta Etxebarri aliarak, Francés eta Otxoto donostiarra...

Baina, badira arraunari oriotarrak beste traineruetan: Zarauzkoan Juan Anjel Xarpas patroi; Ondarroan Klaudio Gorria (semiea); Zierbenan Rafa G. de Txabarri, arraunari-entrenatzaile; eta Getariakoan Rikardo Zaidua eta Azkonoibietza, azken hau han aritu da aurtengo denboraldian jokatzeko aukera hobeak zituelako.

**Arraunarien
elkartasuna Fran
Francorekin**

Kontxako bigarren estropada egunean zazpi euskal traineruak patrulak, Txiki eta Korta tartean. Fran Franco preso pasai-tarraren askatasunaren alde agertu ziren.



Gure
herriko
garagardoa

ITZiAR
Kirolak

Tel: 83 31 03

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

Iñaki Garate

Aseguru-agentea

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3. Telefonoa: 13 46 07

C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

'Aurtengo denboraldia benetan ona izan da'

Juan Mari Larrañaga
Txiki' jolas moduan hasi
zen arraunean. Zarautzen
arazo batzuk izan ondo
ren 1991. urtean Oriora
etortzea erabaki zuen.
Geroztik hemen dabil
patroi lanetan maisutatzat
Korta duela. Berak ere ez
daki orain arte zenbat
bandera irabazi dituen.

Noiz sartu zinen arraun munduan?

13-14 urte ntuela kua
drilakoak arraunean hasi
ziren Zarautzen eta taldea
osatzeko patroi bat behar
zutenez nire tamaina ikusita
animatu eta jolas moduan
arraunean hasi nintzen.

Zerk biltzatu zintuen Oriora etortzera!

Ba, lehen esandako
arraunlari kuadrila horrek
desilusio handia hartu nuen,
gauzak ez ziren lehen bezala
eta giro txarra zegoen, beraz,
horrek arraunean jarraitze
ko gogoa kendu zidan. Sarasua,
lehenagoko Arraun
Elkarteko lehendakariak eta
Kortak lagunduta Oriora etorri
nintzen.

Zein izan da arraunean Iza duzun maisurik onenal?

Nire lehen maisua Gar-

mendia izan zen. Harekin
ikast nituen patroi laneko
lehen urratsak, gero Lujan-
biorekin ere aritu ginen urte
betean eta Klaudio Etxeberria
Gorriozrekin ere aritu nintzen.
Baina maisurik onena Jose Luis
izan dut, berak zuzendu baitizkit
nire maniak eta arraunari buruz
kontu Zahar asko erakutsi
dizkit.

Zenbat bandera lortu dituzu Oriorekin?

Uf! Hori bai ez dakidala.
(direktibo bat galdezen dio)
hemen esaten didate 50etik
gora direla erreza.

Ze untzi mota duzu nahia- go?

Nahiago? Egia esan, mo-
bilekoa politagoa da: alde
batetik, estropada guztian
erne egon behar duzulako
eta batez ere leku asko eza-
gutzen dituzulako. Baina,
fijoak, mugitzen duen jendea
batez ere traineru den-
boraldian mobilekoak ez du
inez mugituko. Fijoan nire
ian bakarra ztaboga eman
eta mutilik animatzea da.

Zer moduzkoa izan da aurtengo denboraldia!

"Ezin da hitzak
esplikatu zer
sentitzen don
Kontxako Bandera
irabazteam"

Oso-oso ona, traineriletan
eta bateletan oso ondo ibili
gara. Zortzikoan beste ho-
nenbeste eta traineruarekin
Kontxarako puntu-puntuaren
jarri eta bandera irabazi
dugu. Eta Kontxa ezkerotik
ez dugu kontrariok izan.
Benetan denboraldi ona egin
dugu.

Eta Kontxak arri garela, noia egin zenuen lehen eguneko ztaboga ikusgarri hura!

Nola egin nuen? Nik uste
dut hor goikoak lagundu zi-
dala. Gertatzen den bakarra

ziaboga ona hartzeko arraun-
lartek eta patroak momentu
jakin batean adostasun bat
izan behar dutela eta hortxe
gertatu zen.

Zerk egin zizun ilusio gehiago, irabazitsako lehen banderak ala Kontxakoak?

Lehenergo banderak ilu-
sio handia egin zidan lehen
zarauztarra izan bainintzen
bateletan bandera bat ira-
bazten, baina Kontxako han-
derak nik uste dut ezin dela
hitzezin esplikatu zer senti-
tzen den, arraunlari baten
illusiorik handiena da.



T

ODITZ

Horma zabaleko oinetakoak
Gizon eta emakumeentzako



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA
SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

KarKara

Kultur etxea zabalduko da laister



JOSE MIGUEL LEUNDA

KULTUR ZINEGOTZIA

Gestio-lanetan ari garenok —modu batera edo bestera— atsekabe ugari izaten dugu: sortutako espektatibak bete ezin izatea, nurrkituak epeak motz geratzen direla ikustea... Hala ere, momentu zoriontsuak bizitzea ere tokatzen zaigu askotan, eta hauxe da horietako bat, aspaldiko helburu bat beteko baita laister. Kultur etxea bukuta dago eta berehala zabalduko dizkie ateak oriotarrei.

Kultur etxeak bere baitan bilduko ditu udal-biblioteca, euskaltegia, Karrika aldiakariaren lokalak, Ostargi taldeak eta jubilatuak eskua-lanak egiteko erabiliko dutena... Gainera, areto zabal-zabal bat izango du era guztietako aktibitateak antolatzeko aukera emanago duena.

Kultur etxeak asko lagunduko du kultur ekimenak egituratzen eta horiei gorputza ematen; bestalde, sendotu egingo ditu herrikik sortutako iniziatiabak: bai kulturalak eta bai euskaraaren aldekoak. Gainera, motibazio handia

sor dezake proiektu berriak prestatzea. Seguru nago gaur egun imajinatu ere ez egiten ez ditugun iniziatiabak sortuko direla bertatik eta oriotar guzton onerako izango direla. Kontratatuak den suspertzale soziokulturalaren lanak dinamika aberatsa sor dezake, lanprograma egoki baten bidez.

Kultur etxeak ez du chuneko chunean funtzionatuko hasieran; baina uste dut, politik-politik, laster harituko

duela martxa egokia eta, denbora asko pasa baino lehen, ezinbesteko erreferentzia bihurtuko dela oriotarron bizi-tza kulturalean.

Sukaldeekin konparatu izan ditut kultur etxeak: ez du ezer askotarako balio sukaldea izugarri ondo ekipatua izatea, gero ez bada barruan lan handirik egiten eta ez bazaio errendimendu onik ateratzen: zopa goxo-goxoa egiteko, osagarriak eta tresnak beharrezkoak dira; baina ez dira nahikoak. KARRAKA eskainti didan aukera balatuz, gonbidatu egin nahi zaituztet, oriotar guztiak. Kultur etxeak zabalduko ditzigun aukera eta proposamen berriak aprobetatzera. Udalean garbi dugu Kultur etxea guztiona dela eta guztiontzat izan behar dueia han egindako lanak.

Kulturaren alorrean egiten ditugun aurrerapausoak gu guztonak dira. Askotago egiteko. Aurrera goaz eta berri ona da hori. Honi horren froga Kultur etxe berri hau!

ANTONIO ALONSO, S.L.

- NOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK
- SUKALDE EKONOMIKOAK

Denda Telefaxes: 13 10 88
Almazena Tfnoa: 13 25 33

DORRONSORO
JANARIDENDA

Abeslari 3 ☎ 83 09 37

EROSLE

AUTOZERBITZUA

G O I Z E K O
* KAFETEGIA
* IZOZKIAK
* CROISSANTEGIA

*pasterikoa
enharaguak
hartzen dira*

Aita Lerkundi, 33
Telefona: 83 28 55

Autoak aukera
onean

AIA ORIO
Telefona: 13 04 38



Herritik kanpora ikasle gazteak

Aurtengo nobedadea den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) hainbat gaztetzok eman berria diote hasiera. Zarauzko Lizardi Institutura joan behar izan dute Getaria, Orio, Zarautz eta Alako ikasle batzuk.

Gazte aiarrek esan digutenez, oraingoaz pozik daude, nahiz eta goiz irten etsetik eta arratsalde erdian itzuli beharra izan; eta neurria hartu nahtan omen diabiltza. Testu liburuak ere ez dituztie denak lortu. Matematikakoa adibidez oraindik ez delako argitaratu eta Natur Zientziatikoa oraindik ez dakite ateria ere egingo ote den euskaraz.

Urtean zehar ikusi eta aztertu beharko dira irakasle eta ikasleentzat berria den esperientzia honen ondorioak eta emaitzak.

Zingira: kanpin berria Aian

Aurtengo udan kanpini berria zabalku da Aian, Zingira jatetxearen ondoan dago kokatuta eta izan berdina hartu du. Zuhaitz ez inguratuta dago eta jatetxea eta supermekatua bertan ditu bigarren kategoriako kanpin honek. Guztira 140 partzela ditu, inguru lasaien, eta itsasoa eta mendia oso hurbil ditu.

Nahiz eta oraindik jende askok ezagutu ez, eta aurtengo uda kaskar samarra izan den, zenbait egunetan kanpina gainezka egin da.

**Udal kontserbatorioan
matrikula epea zabalik
dago oraindik**

Musika ikasturte berria
hastear dago eta landuko
diren instrumentuak
hauek dira: txistua, danbo-
rra, pianoa, panderoa eta
trikitixa.

Interesa duzuenok
Kultur Etxera joan besterik
ez duzue.

SEGA
ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak
Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

- Ezlei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Obeck

Telefonnr: 83 54 65

ALUSTIZA AUTOBUSAK



Berriketa-lanak kasko historikoan

Alako Kasko Historikoaren Berregokiketa-Birgalkuntza Plana behin betiko onartu zuen Foru Aldundiak pasa den trailean. Lehendik Alako Udalak eman zion bere oneritzia eta Eusko Jaurlaritzak ere bere aldeko txostena egin zuen.

JUAN KARLOS ZULOAGA

Planaren asmoa nolabaltz, Kasko Zaharra suspertzea eta bere balioa gehitzea da, etxebizitzak berritzera bultzatzuz, eraikuntza baliotsuenak babestuz, kaleak behar diren bezala urbanizatzuz eta kaskoaren betiko egitura morfo-

logikoa mantenduz. Hau dena, osotasun batean aurrera eraman behar dugu Udala, Jaurlaritza, Foru Aldundia eta bertako biztaleen artean, gure Kasko Zaharra bizitzeko leku erakargarri eta atsegina izan dadin.

Esan den bezala, etxebizitzentz berrikuntza eta hobe-

kuntza helbururik nagusietakoa da. Denok daktiguenez, une honetan hainbat etxe egoera tamalgarrian ditugu eta beste askok obra baten premia dute.

Plan honekin, garbi utzi beharradago, laguntzak normalean izaten diren baino handixeagoak izaten direla beti, baina honek ez du esan nahi, nahikoa izango denik. Laguntza hauek Jaurlaritzak ematen ditu eta urtero dekretu baten bidez zehazten dira, eta famili bakoitzaren diru-iturrien arabera eta lanen arabera banatzen dira. Udalak bere aldetik, kasko barruko obretan lizenziariak ez du kobraztzen, zeharkako

laguntza bat bezala.

Ondare historiko-artistiko diren etxeak babestea da beste helburu bat. Kasu honetan, babes mala desberdinak daude, hau da, lehen bezala eraberritu beharra daudenetatik hasi eta fatxadiako elementu batzuk gorde beharra dutenen artean. Adibide bezala, Elefazak, Doneztebe eta Aitzpea, berrituko balira, lehen bezala mantendu beharko lirateke. Panaderoko etxeak besalde, fatxadiako harri landuak bere horretan mantendu beharko dira.

Hondare honen barruan dauden etxe partikularrek, hasiera batean Foru Aldun-

diaren laguntza izateko aukera izango luke. Gertazten dena da, laguntza hauek momentu honeian oso murriztuak daudela eta etorkizunean oraindik zer gertatuko den ez dakigula.

Baita ere, eraberriztearekin batera, etxe hauekin eta nola ez Udal jabe gokoak direnekin, Plan honek zera planteatzen du: etxe hauek duten balio historiko-artistikoak, nolabait, hirugarren sektoreko iharduera ekonomikoak bertan ezartzeko egoitzea komenigarria dela, hau da, hostalaritza eta turismoa batez ere.


Azkenik beste atal garrantzitsu bat eta Udalart dagoekoa, Aitzpea kalea, Iturri kalea, Sartalde kalea, Joan Etorle kalea eta Gozategi Enparantzaren atzeako kalea berritzea da. Berritze honetan, lur-azpitik egin beharreko hainbat lan burutu beharra dauzkagu: ur sarea eta saneamendu sarea berritu, argindar eta telefono kableak lurperatu eta gas instalakuntza luzatu. Horren ondoren eta kalearen zolua

behar den bezala egokitua uztea da azken lana. Guztii hau, zatika egin beharko da, noski, eta laupabost urtetan dena, bukatzeko itxaropena dago.

Dagoeneko proiektua martxan dago. Aitzpea kaleko erromatar galtzadan lanean ari dira: harriak banan bana altxa eta lur azpitik lehen aipatutako instalakuntzak pasatzen ari dira, ondoren, kale guztia txukuntzeo. Galnera, Iturri eta Aitzpea kaleen artean dagoen murrua egokitu egingo da, inguru hori argiago gera dadin.

Bestalde, Gozategi plazan dagoen Panaderoko etxeen ere egokitze lanak hasi berriak dira. Oraingo barrua hustu egingo da kanpoko berdin mantenduko bada ere, aurrerantzean erabilera soziokulturala izango duen etxe honiek.

Egin ditzagun beraz eginahalak, denon artean gure herriaren bilotza den Kasko Zaharrak beste ehundaka urteko bizia izan dezan.



Aiako leihoa

Pagoeta Parkea Irailaren 27a

Iturraranen gaude leihotik kanpora begira. Zer ikusten? Aia dugu aurrean, bairia curia dakarten laino batzuek iluntzen dute tarteka. Zuhaitz, zelai eta basoak hezetasunaren ditziraz argitzen dira, egitazkoak ez balira bezala.

Tira! Sikiera leihotik begiratzeko tartea hartu dugu. Irailak eman digu horretarako beta, ze, uztail-abuztuaren atsedena hartu ezinik ibili baikara.

Zer dela eta? Gure herria, gure basoa, gure Pagoeta ezagutu nahi izan duen jende asko hurbildu delako Iturraranera.

Hala ere, gure ustez, jendea kafe usainera dator. Gure teoria hori da eta badu oinarria:

— Arreta: *Oraintxe! Jendeik eztonez aprobeta tu behau kafe bero bat hartzeko*

— Bisitariak: *¡Eeeehh! Qué... ¿es aquí?*

— Arreta: *Knauen la oskua. Kalxo!*

— Bisitariak: *Kaldsol! ¡Ej que noj han disho que ej aquí donde noj darian informació del parque!*

— Tira! Bota betiko aitaguera, eguneko ez dakit zenbatgarrena.

— Bisitariak: *Venga! ¡Puej muxa grazia!*

— Arreta: *Aiot.*

Horrela orduero, minutuero, bi hilabetez. Horrela bost mila lagun pasa diren arte. Baino, gustora, batzuetan helbideak trukatu, bestetan txistea bota, baita ere *Arratsalde on!* esaten ikasi dutela eta, euskeraz dakitela, beste askorekin dauden nekazalturismoko etxearen izena ahozkatu ezinik mingaina korapilituta geratu zaiena erruz.

Era askotako jendea etorri zaigu. Honi buruz arrastorik ere ez zuena. Normala, kanpotik etorriz gero, Ingurukoak, zerbait dakitela, *¿Dónde está la ferretería de Agorregi?* Atzerritarra ere bat: *Querrímosss información de la ferretería y la molina esanez.* Eskerrak hanka sartzeko sortu ginen. Bestela, non leudeke gure farreak? Saitu gara Alia ezagutarazten hurbildu direnet eta, ega esan, oso iritzi ona eraman dute.

Lerro hauen bitarte, gonbidatu egiten ditugu inguruko guztia gurera etor daitezen.

● ARRETA KULTUR TALDEA ●



Gero eta odoolemaile gutxiago dago gure herrian

Aiako Odol emaileen arduradunak esan digunez, hogei lagun inguru dira odol emaleak gure herrian. Hala ere, kopurua jeisten art omen da, adineko jendea uzten ari delako, eta gazteak, berriz, animatzen ez direlako.

Odol-estatea urtean bi aldiz izaten da gure herrian, eta azkena irailean izan da. Edozeinek eman dezake odola, baldintza gutxi batzuk betez gero: 18-65 urte bitartekoak, hepatitis pasa gabea, gutxinez 50 kiloakoa izatea eta osasunez ondo egotea.

Beraz, espero dezagun odol emaileen kopuruak gora egitea, elkartasun frogatzailetsu honetan.

Futbito eta pelota


Herriko Kanua futbito taldea iaz lehenengo mailara igo zen eta, dagoneko, lehian hasia da berriz ere. Partiduak, zoritzarrez, Zarautzen jokatu behar dituzte, herriko frontoiak ez ditue lako arauzko baldintzak betetzen.

Bestalde, Aiako Kirol Elkarteko Maider eta Eli Lasa izango dira Pelotako Euskal Ligako etabeketari hasiera eman dione.

Kantabriara bidaia

Hilaren 23an, asteazkena, izango da Udalak antolatutako bidaia. Lehendabiziko geldiakoa Torrelavegan izango da ganadu azoka ikusteko. Ondoren, Santillana del Mar, herri bentean aparta, bisitatuko da, eta han bertan bazkalduko dute. Bukatzeko, Santander ezagutuko dute.

Bidalara joateko interesa izanez gero. Kultur-Etxera edo Gizarte Laguntzalea-tengana jotzea besterik ez duzue izena emateko.



EZKONTZA, JAUNARTZE
EDO BATAIOETARAKO
LEKU APROPOSA

Bertako sagardoa eta
etxeeko postre bereziak

egin gure publizitatea

KarKara

☎ 83 15 27

aldizkarian

ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro ☎ 83 45 21

KANUA

Jestak ospatzeko kategoriko lokua

☎ 83 43 22



GAIA

Aliron, Aliron...


Sasoi-puntua ondo hartu gabe hasi bazuten ere traineru-denboraldia arraunkariak, zalaniza izpiritik gabe onenak direla erakutsi dute bat bestetan atzetik sari nagusienak eskuratu. Baino, Arraun Elkartea, ez da trainernua bakarrik. Datu bat: urteko lau egunetik bat estropadan eman dute arraunlariek, nahiz tostetan nahiz olinpikoan, guztietan mailarik hoberena erakutsiz. Ekipu oso bat dagoelako egin da halako lan bikauna, elkarren arteko konfidantza erakusten du horrek eta hor bilatu behar da arrakastaren gakoa. Gustora sentitu gara arraun-palada baloitzean, zoriontsu banderak jasotzean, emozioz bete gara alironak entzutean... zer gehiago eskatu behar dugu? Hau denna jasotzen sailtu gara erreportaje hau osatzeko, disfrutatzeko garala da-eta.

● ANA G. DE TXABARRI ●

Mimo handiz egindako prestaketa Zarauzko Ikurrinaren bigarren jardunaldian hasi zen espero zen emaitza ematen. Tostetan egindako aldaketak tripluazio titularrak zein izango zen erabakita utzi zuen.

Aste guztietako konpromesiazk aurerra ateria nahiak preparazio berezia eskatzen du. Urtailean, trainerusk hasi zirenean, erritmos mantsotzea erabaki zuten entrenatzaleek, modikuak eta presta-txaleak; kontxarake jarri zuten puntua hartzeko momentua eta... gauzak ondo baimo hobeto atera dira.

Beste taldeean gainetik aritu dira azken txanpan. Taiki Larrañagaren urtea izan da hau. Berak hartzu du petroil izatearen ardura eta gustora sentitzeko motiborik badu.





Goikoan: txalupa uretatik aterra eta jendea inguruan: Kontxaiko 27. Bandera etxean zen.

Erdikoan: Urdirotxako inguruak jendea gaineska zendeia, arraunlariek bandera astintzen dute batak bestearren atzetik. Egun berozia Patai Frantziszkat, arrauna utzi du eta ez du bizi horrelako beste bat.

Behekoan: Koadrilla biltzeko egun aprobosa izaten da Donostiako estropada eguna. Berperatik antzematen ziren jendearen nerbioak: estropada-giroa pil-pilean. Kolore horiz bete ziren Donostiako bazterrak. Hemengo hauetako ondo baino habeto antolatu zuten festa.



Protagonista nagusiak izaten dira arrauniarisk eta hala behar gainera. Asier Puertas, Mikel Orbañanos, M. Anjel Lizarralde, J. Antonio Olaskoaga, Ibon Urieta, J. Luis Agirre, Jon Salsamendi, Agustín Mujika eta Iñigo Arruti oriotarrak, Iñaki Manterola eta Anjel Odriozola alarrak, Patxi Francés eta Jokin Otxotorena donostiarra izan ziren Kontxan irabazle Txiki Larrañaga zorauztarra patroi zela. Baino, argazkietan eta telebistan hainbat ateratzen ez diren bestearen lana oso garrantzitsua izaten da hauek borea ondo egiteko: Klabeko zuzendaritza JJ Olatagasti burnu duteia; JL Korta, entrematzai.

Iea; Rafa G. de Txabarri, prestatzaile-hisikoa; Guillermo Cuesta, medikua; J. Luis Gozategi, Joxe Atxaga, Larraza eta Pello Etxeberria laguntzaileak; ordezko arrauniarriak; Arraun Elkarteko 600 batzidesk; Orioko herria... denok izan gara arrakasta honen protagonista.

1996ko Traineru-denboraldia

— Irabazitako banderak —

Euskadiko Sei Ortuak
Ondarroako Bandera
Santurtziko Bandera
Santoñako Bandera
Kontxako Bandera

Memorial J. Cuesta
Bermeoko Bandera
BBK Bandera
El Corte Inglés Bandera
Euskadiko Liga



Korta

Denboraldiaren balorazioa zein izango litzateke?

Importanteena irabazi dugula. Ona izan da, ez da dena irabazi balina, onenak izanez bukatu dugu. Oso zaila da guk egiten duguna, denetara joan eta maila hoberena erakutsi. Beste klubak gauza bat edo beste preparatzen dute eta guk denen kontra aritu behar dugu eta aurten denetara tritsi gara.

Azkenean Orion geratuko al zara?

Nire buruan bakarrik pentsatuta, egoistamente, joan egin beharko nuke, aukera hobeak ditut-eta. Orion ia dena konsegutu dut, gauzak hobe egitea zaila da hemendik aurrera. Gainera, jende askok dudan jartzen du nire balioa eta hori oso latza da, batez ere familiakoek gaizki pasatzen dutenean. Orion geratzen banaiz, apustu hori egin nuelako izanganda eta konfiantza osoko taldea dudalako: direktiba, arraunlarriak..., denok ari gara batera lanean. Badakit gauzak okertuz gero jai dudala hemen baina, familia bilduta denon artean haratuko dugu erabakia.

Euskaldunen Egunkarian, irailaren 6an, argitaratutako komikia. Beti bezala, umore finex Olariaga.



© Olariaga

‘Oriok tinko eutsiko dio euskarari’

Lazkaon jaio zen Demetrio. Hamahiru urte zituela erabaki zuen apaiz egitea. Mislitarako zaletasuna zuen eta urtebetetik Arroako parrokiaren apaiz jardun eta gero. Ruandara joan zen hogeieta sei urte zihuenean. Bere anaia ere misiolari zegoen han bertan. Guztira zortzi urte eman zituen Kigalitik kilometro gutxi batzutara dagoen herri batean, eta han bertan, oriotar batekin egin zuen topo: Maria Jesus Camposekin. Harrezkero ezagutzen dugu gure artean, eta garai haietaz eta gaur egungo kontu batzuetaz jardun ginen, eta oso gustora gainera, lazkaotarrarekin.

MIREN ETXEBERRIA

Zerk biltzatu zintuen apaiz egitera!

Hamahiru urterekin ez da gehiegiz penisatzen, eta garai haitan ez zegoen irtenbide gehiegirik ere. Familiaren eragina ere izan zitekeen, nire beste bi analiak ere apaizak baitziren. Eta beno, mundu hori beretan gustatzentzitzaileko, eta oraindik orain ere gustatzen zait. Bakarrik orain ezin dugula, eta jende asko diago apaiztatik atera direnak, baina baita ere jarraituko luketenak, baina, beste era batera.

Ezkontza eta apaizgintza batera posible balitz!

Bai, adibidez. Kontzilioaren ondorengo garai haitan bazitriduen aldaketa batzuk emango zirela, baina ez

“Jende asko dago apaiztatik atera direnak, baina beste era batera jarraituko luketenak”

zuten aurrera jarraitu.

Nire ustez gaur egungo egoera kezkagarria da oso. Oraingo apaizak bukatzen direnean zerbaile penitatu beharra dago, aldaketak beharrekoak dira, beste bide batzuk bilatu behar dira.

Zergatik erabaki zenuen apaizgintza urtea!

Ruandan bertan hartu nuen erabakia. Zortzi urte pasa nituen han, eta gauza askorekin ez nengo ados. Apaizgintza aurrera eramaketeko beste sistema baten bila ninenbilen, eta Kontzilioaren


ondoren eman ziren aldaketeak nahiko eragina izan zuten. Gainera, gaurnire emaztea den Maria Jesus Campos ezagutu nuen, eta orduan beste modu bateko bizimodu moldatzea erabaki genuen.

Zein zen zuen zeregin nagusia Ruandan?

Hango bizimodu ez da batere erraza, eta batik-bat lagundu egiten genuen.

Sakramentuak baino gehiago eskolak eraikitzen eta horrelako lanetan aritzen ginen.

NORTH Company
SANTANDER



Ruandan pasatako denbora hartaz zer da gehien gogoratzetan duzuna?

Haurrekin egiten nituen irteerak, akanpadak eta horrelakoak. Herri hark gehien erakutsi didana, hizkuntza maitatzea da. Horrelako herri batera joaten zarenean, nahi eta nahi ez, hizkuntza ikasi behar duzu beralekin bizimodu konpartitua nahi baduzu.

Bestalde, atentzioa gehien deitu zidana izan zen, zeukan guztia emateko prest zuendela, naiz eta pobreak izan. Horretan, nik uste dut

ejenplosa ematekoak direla. Askotan, jateko ere ez dute izaten, baina dutengutxi hori ere kompartitzekeko beti prest. Balta ere, harrigarria zen zenbateraino maite zuten kanpotik etortzen zena, nahiz zuria, europarra izan.

Afrikatik Oriora etorri al zinen!

Lehendabizi Erromara joan nintzen Filosofialako ikasketak egitera. Denbora piskatean lasai hartu nuen, nire pauso berria azterzeko, biziota birmoldatzea ez baita oso erraza izaten. Erroman bi urte eman nituen.

Bitarte horretan xure emarrea Orion al zegoen!

Maria Jesusek Magisterliza egina zuen eta oposizioak ere bal. Orduan, erizain jarraitu beharrean, alde horretatik ere joan zitekeen eta, irakasle gisa lanean hasi zen.

Oriora etorri zinenean hasi al zinen irakaskuntzan!

Bal, 1975ean Oriora ezkondu nintzen, eta lehen-dabizi Lezon aritu nintzen eta handik Zarauzko ikastola pasa nintzen. Gero, euskara eskoletan sartzen hasi zenean, Zaraguetan jardun nintzen bi urtez.

Lehendabizi hona etorri zinenean, nola ikusi zenuen herria!

Benetako indarra somatu nuen hemen. Orduantxe hasten ari zen euskarekiko kezka, esate baterako, gau-eskolak martxan zeuden ni etorzerako. Nire ustez, Don Soterok lan handia egin zuen

euskara aldetik; eta balta, Don Jose Etxeberriak ere. Ikasteko gogo izugarria ikusi nuen. Beste garai batzuk ziren, orain oso instituzionalizatua dagoen bezala, orduan ez; hura, militantismo garaiak zen.

Berehala integratu zinen herrian, ezta!

Bai, gehienbat euskara aldetik. Gazte batzuk eta baziren, mundu horretan laguntza piskat eskatzen zutenak eta hori asko gustatu zitzaidan.

Bestalde, politika munitik ere eskaintza batzuk izan ntu, udaletako martxa hasi zenean, baina ez nuen nahi izan.

Musika munduan ere ibilia zara.

Musika aldetik, nire lana izan zen gehienbat elizako liturgi eginkizunetarako kantuak erakustea herriari, kontestu horretan sortu zen emakumez osatutako korua. Txarangan ere ibilia naiz. Orduan beste adin bat neukan, eta herriko ekintzetan parte hartzea oso gustokoa nuen.

Esan behar dut, musika aldetik Orion lan ikaragarria egin dutenak badirela. Baina askotan lan hori bazter-

tua izan da edo ez du hainbesterako garrantziarik izan. Ez dakit, norbaitek egiten bazuen zerbait, hura zapaldu edo ahaztu edo... Paxi Olidenek egin duen lana benetan zoragarria izan da. Balta Martin Lizasok eta beste askok ere.

Gaur egun, kultura aldetik, nola ikusten duzu herria?

Kulturaren ardatz nagusia hizkuntza da, eta Oriola oso herri euskalduna da. Azpinarragarria da helduen artean hitz egiten den euskara, benetan jatorra eta abertsua, zenbait herritan baino askozaz hizkuntza abertsagoa erabiltzen dute.

Euskara aldetik zer esan handia daukate erakunde publikoek eta politikoek, eta oraindik normalizazio lana badago. Baina Orion izugarritzko urratsak eman dira, adibidez, euskalfegia, eus-

kara zerbitzua, KARKARA. Aldizkaria izugarri tresna baliotsua da hizkuntza nematalziorako, nahiz eta pertsonalki, ados ez egi KARKARAK izan duen joc partzialarekin, batez ere ikastola aldetik, denontzatz ez baitu berdin jokatu.

Bestalde, oso herri tradizionala da, ohiturari oso lotua, bai erlijio aldetik eta beste arloetan ere.

Gazte jendea ere bail!

Ez, gazte jendea aldatzen da gauza askotan. Baina zerbait, kutsu bat du. Adibidez, kirol aldetik, baina usuek tradizio sanoa dela.

Nola ikusten duzu herria etorkizunean?

Herri honek beti eutsik dio euskarari, eta tingo gainera. Oso zuri naiz fruitu onak emango dituztela be laualdi berrieik.



"Ruandan atentzia
gizien deitu zidana,
zeukaten gutxi hori
ere emateko prest
zeudela beti izan
zen"

MANIFESTAZIO NAZIONALE
DONOSTIAN bilbarreran
URRIAK 12 17:30etan

EUSKAL HERRIAK IZAN BEHAR DU
euskalduna eta librea!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Erromeria zaharrak gogoan

Jose Mari Lertxundiren azken liburuaren kritika

Jose Mari Lertxundi alarra, ofizioz basozaia, ofizioz bertsolari, Laurgainen bizi da. Baino Jose Mari idazlea ere bada, eta bere zaletasun honen azken emaitzaz hitzeingo dizuet orain, «Beti festara begiak» tzeneko liburuaz.

Jose Mari erromeria dakarkigu, gaur egun galduxeak eta hil zorian dauzen erromerielak. Liburu honen euskal literaturak zuen hutsune bat betetzen digu aiarrak, izan ere lehenengo erromerien aipamen asko egin ohi bada ere, erromeriak zer ziren, nolakoak, inork ez digu azaldu orain artean. Lertxundik, berriz, malsukilegiten digu; erromeria oso oso gertutik ezagutu duenaren jakinduriaz; euskeria eder, errez, aberats, jator eta guretzat (aiar eta oriotarrentzat) gertu- gerukoan azalduta, gure euskeran, eta garai batekoek bezala h-rrik gabe.

Berak ondo ezagutu ditu erromerielak, bizi egin ditu, eta gure artetik ihes dilhoakigun zerbaitekin modura orotarazten ditzkigu, berotasun haundiz eta tristura kutsu batekin: «gaur baitio jende alaigoa izaten zan garai artan. Dirua eta aurrerapenak etorri ziran orduan asl zan gizonea berekoitzen eta diruaren mende jartzen; eta lengo umore eta lasaitasunak orre-

laxe joan ziran pikufara, eta ez det uste berriz etorriko zaizkigunik». Hala ere etsipenarekin batera itxaropenak ere hartzen dio lekutxo bat liburuuan: «garotako gauzak ostera berrikuntza izaten dute, orretaz orotzean, itxaropen apur bat gelditzen zaitzitzean».

Aiarrak liburuko orrialdeetan bueltatxo bat ematen du Aiako geograflan, auzo guztiak pasatzen ditu ia. Urdaneta, Altzola, Laugain, Iturrioz, San Pedro, Ernio eta Pagoeta... eta garai bateko ohiturak eta bizimoduaz azaltzen digu. Horretan du balioa liburuak, zaharrek gozatu egirgo dute liburu

honenean bidez gaztaroko kontuak gogoratuz, eta gazteek harritu egingo dira aldi berean horren gertu eta horren urrun daukagun mundutxo hori ezagutzean.

Oso ohitura bitxi eta jaikingarriak deskribitzen ditu; jala antolatzeko era (mutiliarroa), festa bukatu ondoren neska laguntzea, ellazaren inguruko gazte taldeak: luistarrak eta Mariaren alabak. Pasadizo xelebre askoak ere bat: Aiako plazan dantza lotuan jarduteagatik Ondarretako kartzeka ezagututako gazteen kasua...

Oso modu irakurterrezean antolatu du liburua Lertxundik, atal laburretan, haue-

tako batzuen bukaera alde- ra zenbait bertso tartekatuz, batzuk benetan onak. Ezagun du Jose Mari bertsolaria dela.

Lertxundiren ikuspegia subjetiboa da, kritika hau bezalaxe, eta idiliko samarra: garai bateko zen ona, oraingoa berriz... Zaharren artean normala da honelako hitzak entzutea: «garai batekoak bat festak, ez oraingoak», behin gazte batek bat erantzun ziona esango nioke nik Jose Mariri: «orduan bat zuek 20 urte eta ez 70».

Aiarrak ez du aukera erabilten garai hartako giroak zituen aje eta alderdi txarrak azaltzeko, eta bazituen, bat, bazituenetan: askatasun falta ikaragarria, erlijioak eta elizak gizartean zuen eragin haundiegia....

Liburu hau festaren inguruko gogoeta bat da, festa guztiak urbanizatzen eta berdinaren ari zizkigun garaian gazteei zer pentsatua eman diezalekeena. Gutxengutxinez nondik gatozen argitzen lagunduko digu, baserri giroa ondo baino hobeto azaltzen digu eta. Izen ere ba ote da inor Orion edo Aian, bertan jaio eta aiton amonak ere bertakoak dituela, hauetakoren bat gutxienez baserritarra ez dueña?

IÑAKI ITURAIN



IRADI AHOLKULARITZA

- ✓ ERRENTEA AITORPENAK - BEZ (IVA)
- ✓ SOZIETATEEN GAINKO ZERGA - NOMINAK
- ✓ KONTABILITATEA ETA MOTA GUZTIETAKO ASEGUROUAK (ZURICH)

Aita Lertxundi, 33 beheha Tel./Fax 13 46 96

ZUMINTZA

- Neapaindegia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

TORRETXO

Jende asko harritu egindo da baserri honen izena Torretxo dela jakitean, askok eta askok Torrotxo deitzen baitiote. Bi izenak oso zabalduta daude herrian. Batzuek era batera esaten dute eta besteek bestera, baina bere izena Torretxo da, bertakoek nondik datorklon ez badakite ere.

ANA ITURAIN

Torretxora joateko Xuaitik behera doan bidea hartu behar da, goiko aldeko moztua dagoelako. Baina kontuz beheko bide horrekin zuloz beteta dago eta. Maria Pilar Arrutik, gure solaskideak, esan bezala: Gero eta zulo gutxiago dago, Lehen bi edo hiru zeuden tokian orain elkartu eta bakarra dago. Behin Oibarzarko hondartzara iritsita, Txurruka kanpamentuaren atzean ikusten den lehenengo baserria da Torretxo. Garai honetan eta eguraldi ona eginet gero, toki ezin hobeaguzkiaren azken errainuez gozatzeko. Kanpoan mahastiatik dauzkate txakolina egiteko. Azken bi edo hiru urteotan izan ez badute ere, badirudi aurten edan ahal izango dutela. Lehen sagardoa ere egiten zuten, baina orain etxerako egiten duten txakolin horrekin konforme dira,



Une honetan Maria Pilar, anala bat eta honen emaztea bizi dira baserrian, baina asteburuetan jende mordoska biltzen da. Kontutan izan behar da hamalika anai-arrebba direla, hori bai, denak ez dira herri berekoak.

BATZUK AIARRAK, BESTEAK ORIOTARRAK

Hamalika anai-arrebabetik, hiru oriottarrak dira; hauek jaio zirenean non apuntatu aukeratzea hazi-goeiako, beste zortziak, berritz, aiarrak dira baserria Alai dagoelako, eta orduan han eman behar izan zuten izena. Maria Pilar, Torretxoko kontuak esandiziguna, aiarra da jalotzea eta bere burua aiartzat du nahiz eta bizimodu Orion egin.

Arrutitarrak, beraz, batzuk oriottarrak dira eta beste batzuk aiarrak, baina To-

rretxora etorri zen familiako lehenengo, Maria Pilarren berrailtona hain zuzen ere. Altzolatik elorri zen eta Agresarobe zuen abizena.

Dirudienez, Txurruka kanpamentua eta hondaritzia Oriokoak dira, baina horrik aurrerako lurrak Alai daude.

Errio ondoan egoteak nor-tasun berezia eman dio baserrari: baserriko lanak egiteaz gain beti jardun izan direlako muskuilu eta almejetan, eta oraindik ere jarraitzen dute horretan, baina lanperna eta izkirak ez dituzte hartzen. Beste bitxikeria esnea herrira ekarizeko erabiliz zuten garraioa da.

HERRIRA BATELEZ

Urtetan, bidea egin arte, esnea partitzera herrira eloratzeko batelez egiten zuten molilarainoko bidea. Me-

dikuak edo praktikanteak joan behar bazuen, berriz, hondartzaren beste aldetik absatzen zuten eta bila joaten zitzazkion.

Itsaso handiaren eragina ere Jasán du Torretxok behin baino gehiagotan, ura baserriraino heldu baitzitzalen, baina aspaldiko urtetan ez da horrelakorik gertatu.

Orain, esnea partitzentzat lanik ez dute, behiak-eta 1976an kendu zituztelako. Hala ere ardiak, konejuak, hegaztiak eta baratza badute eta horiek nahikoa lan ematen dite.

Baserriko animaliak evezik zenbaitetan hondartzara joaten direnek ere lana ematen dite, baina gorabeheraren bat kenduta, oro har, harremanan nahikoa onak izan dira beti Torretxo eta kampamenduan egondakoen artean.

jaiotakoak

Laida Lasarte Beldarrain, ekainaren 13an
Mireia Zinkunegi Garate, ekainaren 18an
Iraitz Urkizu Gatzatzañpi, ekainaren 22an
Ane Hernández Artero, uztailaren 4an
Lorena Beldarrain Hernández, uztailaren 25ean
Julen Alonso Apezetxea, uztailaren 25ean
Ekaitz Irizar Gómez, abuztuaren 12an
Iratzi Azkue Zaldúa, abuztuaren 18an
Olatz Lizaso Rosillo, abuztuaren 27an
Malen Iturain Garzia, irailaren 6an
Hasier Zabaleta Larrañaga, irailaren 11n
Naiara Larrañaga Renedo, irailaren 18an

Aian

Saiola Arzadun Manielaren, uztailaren 11n
Andrea Zupitria Ibarrola, abuztuaren 18an
Miren Iñarra Mendi Sierra, abuztuaren 30ean

ezkondutakoak

Koldo Aranburu Iparragirre eta Ana Etxeberria Guridi, uztailaren 20an
Txomin Andoni Martíarena, Aizpurua eta Merbe Coronado Vivas, abuztuaren 17an
Juan Carlos Pastor Carretero eta Mari Carmen Garde Segura, irailaren 28an
Manuel Aizpurua Uriña eta Arnal Aizkue Aldabaldezkua, irailaren 28an
José Antonio Idarreta Igartua eta Marta Zapirain Sánchez, irailaren 28an

Aian

Ez da ezkontzanki izan.

hildakoak

Angela Izeta Iñarra, ekainaren 7an, 88 urte
Carmen Larrañaga Sancho, ekainaren 17an, 82 urte
Gregorio Genoba Lopetegi, ekainaren 30ean, 87 urte
Inazita Lezeta Murgiondo, uztailaren 22an, 85 urte
Josefa Urkizu Arregi, uztailaren 23an, 90 urte
Manuel González Gutiérrez, uztailaren 23an, 81 urte
Lurdes Mugika Iñarra, uztailaren 26an, 23 urte
Inazio Zinkunegi Beristain, abuztuaren 11n, 64 urte
Emilia Arruti Portularrumo, irailaren 23an, 87 urte

Aian

Inazio Roteta Ostolaza, 74 urte
María Martina Lertxundi Gatzatzañga, 88 urte
María Goikoetxea Lujanga, 82 urte
Anjel Sebenino Larrañaga, 86 urte

zorionak

Arraun Elkarteekoi, jakina!

Denboraldia bukatu eta geró —eta aurtengoa ez da makala izan emaitzei begiratzen badiegu— atsedena hartzeko garaia da.

Lehorrean geratu dira arraunak eta txalupa humengora arte. Guk, zorionak esatearekin batera, hau erantsi nahi dugu: ondo-ondo disfrutatu atsedentxo hau. Erderki irabazita duzue-eta!

Zorionak hemiko guztien partetik!

zoriotxarrak

Zakarrak botatzeko ordua errespetatzen ez dutenei

Bada oraindik ere basura etxetik edozein ordutan ateratzen duenik eta horrek izugarrizko kaltea eragiten die besteei.

Alde batetik kiratsa, bestetik zakarrarontziak gainezka egoten dira egun argiz... nazkagamia izaten da benetan.

Ohitura ondo hartzea bestenik ez da eskatzen, arretxa pittin bat izatea.

Orain dela...

25 urte

1971ko irailean, garai honetan urtero gertatzen den bezalaxe, arrauna izan zen berririk aipagarriena. Urte hartan, aurten bezala, Oriok irabazi zuen Kontxako bandera. Horretaz gain orain dela hogeta bost urteko irailean domina ezarri zioten Joxe Mari Salsamendiri egindako kirol merituengatik.

✓ Kontxako estropadak irailaren 5ean eta 12an izan ziren. Lehenengo igandean Oriok aurrenengo txandan parte hartu zuen, Donostia, Lasarte eta Zuberoarekin batera. Bigarren txandako ontziak Arraun lagunak, Hondarribia, San Pedro eta Hernani izan ziren.

Hauek dira lehenengo lauen denborak:

1. Orio 21' 43" 3. S. Pedro 22' 23"
2. Lasarte 22' 03" 4. Donostia 22' 32"

Bigarren igandean, oso itsaso handia izan zen, beraz denborak askoz ere handiagoak izan ziren. Estropada hau ere Oriok irabazi zuen, eta ondoko hauek dira denborak:

1. Orio 24' 05" 3. Donostia 24' 53"
2. Lasarte 24' 21" 4. S. Pedro 24' 58"

✓ 18 eta 19an Bilbon Espainiako Txapelketa eta Nerbioiko Sari Nagusia izan ziren. Nerbioiko Saria irabazteko bi egunetako denborak hartzen ziren kontuan, eta Espainiako txapelketarako, berriz, bigarren egunekoak. Lehenengo egunean Astillerok irabazi zuen, eta 13 segundu kendu zizkion Oriori. Bigarren egunean Oriok irabazi zuen, baina sei segundu besterik ez zizkion kendu Astillerori, beraz Oriok Espainiako Txapelketa irabazi zuen eta Astillerok Nerbioiko saria.

✓ Irailaren 7an Galarretan afari bat eta ondoren pelota partiduak izan ziren Salsamendiren omenez, erremontean izandako ibilbide paregabeagatik domina ezarri baitzuten. Salsamendik 17 urterekin debutatu zuen, eta binakako hiru txapelketa irabazi zituen.

Ibai-ondo
Supermerkatua
Telefona: 83 47 50

Carmen
ARRAINDEGIA
.....
Telefona: 83 05 37

TXOMIN
arraindegia
Tfnoa: 83 27 47

ARGI-GAIAK
elektrizitatea
Iturbide, 11 Tfnoa: 83 17 74

daddy
Udagaten eta negurako
arropa berria
Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16 - ORIO

LIZASO
ALTZARIAK
Eusko Gudari, 46 Tfnoa: 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 Tfnoa: 13 33 01

ITURAIN
estankoa
Aritzaga Plaza Tfnoa: 13 44 73

ertza
Tfnoa: 83 09 29

Orioko erlijioa

Andres Garmendia apaizak nahiko luke iraileko lehenengo bi igandearian Donostiarra joaten den oriotar kopuru bera meza eta sermoietan biltzea. Gaur egun hori ezinezko da, arrauna baita Orioko erlijioa. Hori bai, ziur nago oriotarrek, fededunek zein fedegabek, gehien errezatzen duten garaia estropadak denboraldia dela, eskatzea libre baita.

Arrauna sekulako fenomenoa da Orion. Herriari bizia, kolorea eta giroa ematen dio, baina ez al gaitu itsutzen geure koloreen horitasunak? Benetan pozgarria da arraunlariek irabazitako tropao astintzen dutenean plazan biltzen den jendetza ikuslea. Orioarrak elkarrekin ditugun iku-mikak abatzu eta festarako elkartzten gara, denok ospatzen dugu gure herriak irabazitako Shorea.

Hala ere, arraunak Orioni mugiarazten duen jendetza ikusita, hairbat kezka sortzen zaizkit. Orioarrak ez dugu altzakiarik jartzen arraun inguruko kontsengatik mugitu behar dugunean, eta beste zenbaitetan gogo txarréz eta kopetilun egingo genituzkeen gauzak horondate onez egiten ditugu. Arrauneko ez dugu altzakiarik jartzen eta prest gaude arraunaren kontura geure poltsikoko dirua ere gastatzeko.

Herrian egiten diren beste zenbait sarreratzen, aldiz, ez dugu inork arretarik jartzen eta ez da ia arimarrak azaltzen. Antolatzaleak berehala ere egiten dim eta jai dugu berriro beste zenbait antolatzeko. Orioarrak arraunean xahutzen dugun indarraren, ilusioaren, borondalearen, hitz jarioaren, txaloaren eta diruaren zati bat beste zenbait lane-tarako erabiliko bagenu, hobeto geundeke.

Bukatzeko, zorionak Orioko arraun-lari guztiet, balkoira ateratzen direnei eta itzalean edo ebtean egon behar dutenei, azken horietaz oso gutxi orotzen baitira gauzak ondo desazenean. Baixa orolzapen bat err Orioko trainetsuari izena eman dion Asier Gastañazpi Kanparentzat, honezkero berak ere ospatu baditu lagunen garaipenak.

● IAKO GORGETXIA ●



Manuel Etxeberria Portularrumo

Manuelen aita zena, Antonio, arrantzalea zen. Bere ama, Kandida, Atxoko Larrume baserrian jaioa da. Manuel, ama bezala, lehorrekoa da, itsaso oso gustokoa badu ere. 42 urte ditu eta aspaldi samarretik Orioaren kanpo bizi da. Manuei beste askorena gertatu zitzaloi: estudiatzera atera zen herrik, neska ezagutu, ezkondu eta herriko itzuli ez. 1980an Parisa joan zen medikuntza ikastera. 1986an, karrera bukatuta, Bretaña aldera jo zuen psikiatriako espezialitatea egitera. Buktatu eta berehala laria topatu zuen, siksik. Eta han bizi da Josiane Andrea eta bi semeekin, 11 eta 5 urteko Yann Iker eta Thibault Irigo. Bi semeen izen bikotzek gurasoen jatorri eta kultur desberdinak uztartzen dituzte. Bretoñako hegoaldean dagoen 12.000 biztanleko Redon izeneko hirian bizi dira, itsasotik 60 km-ra, urrutti samar oriotar batentzat. Izan ere saltan gehien botatzen omen duena, Orion bizi zen garaikoa, itsasoa da, itsasoa gertu izatea alegia.

Oriora urtero etortzen da familiarekin, bi aldiak gainera, gabonetan eta udan. Abuztuan izan zen gure artean eta guk ez genuen aukera galdu hitz egin eta txoko honetara ekartzeko. Bretoñako berezko hizkuntzaz galdetuta, esan zigun bretoiera Bretoñako ipa-

rraldean bakarrik hitz egiten dela, bera bizi den inguruari orain dela ehundaka urte desagertu zela eta euskara baino okerrago dagoela. "Orain frantsesa betterik ez da hitz egiten". Gero Orioren gainean hasi zitzaigun: "Orio piskat aldatu da joan nintzenetik, baina gehiago aldatu behar du. Jendeak pentatzan duena esan egin behar du, baina ez hauteskundeetan bakarrik, egunero.

Horretariko aukera egokia kirlo kalarena izan liteke, udalak goldetu egin beharko lioke jendearei, eta jendeak bere iritziaz eman. Aurrerapenak askotan atzerapen bihurtzen dira. Batzueta dagoenari eustea hobe izaten da teknika berriei ekitea baino, orain egindakoak 40 urte barru agian orain autopista ikusten dugun moduan ikusiko ditugu, desastre. Ondo pentatu beharra dago atzera bueltartik ez duten gauzakin".

Ezagun du Manuelek, oraindik ere, KARKARA egiten dela herriko kontuekin. Oraindik bizirk du, duela urte batzuk politikan militatzera eraman zuen herri kezka.

Azken bisita honetari ikusitako dei-garriena barra mutur berri haundi hori iruditu zaio, baina, bere iritziz, behar bada berandutxo etorti da.

Salatxo abesbatza Kataluniako Iurretan

Orioko Salatxo abesbatza oso ezaguna egiten ari da. 50 partaidek osatzen dute eta sortu zenetik, duela bi urte eta erdi, hainbat eta hainbat kontzertu eskainiz ezezagatik sonatua izatera ere iritsi da. Euskal Herriaz aparte, atzerrian ere eman baitituzte kontzertuak: Italian eta Frantzian, esate baterako.

SALATXO ABESBATZA

Udako oporrak hartu baino lehen, Marina Lertxundik zuzentzen duen abesbatzak denboraldiko bere azken kontzertuak eskaini zituen Lleidan: Sant Llorens de Morunys, Solsona eta Oliana.

Kataluniako emanaldi hauetan musika erlijiosa, polifonia, folklore internazionala eta euskal folklorea eskeini zuten, besteak beste.

Alpatzekoak Gounoud-en *Messe Breve*, Fauré-ren *Cantique de Jean Racine*, Rachmaninov-en Ave Maria, Olai-zolareng Agur Jaunak, Mokorroaren *Illuminaria*, kubatar *Habanera Divina*, e.a. Organoan laguntzaile Agurtzane Albitua izan dute.

Salatxo
abesbatzakoak
Katalunian
eskaintako
kontzertuetako
batean



EUSKAL FOLKLOREA ERAKUTSI ZUTEN

Bi kultura desberdinaren topaketa izanik, Orioko Salatxo abesbatzak euskal folklorea goralpatu nahian, euskal abestiak baserritar jantzita abestu zituen.

Lehendabiziko kontzertua Sant Llorens de Morunys herriskan izan zen eta bertan a cappella abestu zuten.

Bigarren eguneko kontzertua Solsonako katedralean eman zuten. Emanaldi hau, joan den urtean Orioko San Pedro jailetan ospatu-tako topaketaren ordaina izan zen, berarek eskeini bai-

tzuten Orioko Salatxo abesbatzarekin batera emanaldia San Nikolas eliza nagustan.

ABESTIAK KATALANEZ

Topaketa izanik, bakotzak bere saloaz gain, amaituan Orfeo Nova Solsona eta Saltroxek bi euskal abesti kantatu zituzten elkarrekin. Salatxo abesbatzak Solsonako katedralean bere emanaldia eskeintzeaz gain, bi abesbatzak, Kataluniako bi kantu, El Rosynol eta L'heureur Riera, abestu zituzten katalanez. Bi kantu hauek oso estimatuak dira bertan

eta jendea hunkitu egin zela aipatu behar da.

Azken kontzertua Oliana herrian eskeini zuten, eta amaiera ezin hobea emateko, Solsonakoek herribazkari bat prestatu zuten Kataluniako ohitura eta gastronomia ezagutarazteko. Horrela, Sardana, bertako dantza ospetsu eta maltatua, ikasteko aukera ere izan zuten Salatxo kantuak.

IRALEAN ALEGIAN

Udako oporraldiaren ondoren, lehen saloa irailaren 28an eman zuten Alegiko San Juan Bautista elizan.

IL GELATO

Etxeko helatuak eta kruasanak

San Nikolas, 17 TFNOA 131747

GURE TXOKO TABERNA

ARITZAGA KALEA

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko razio bereziak

13 30 14



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Iraial Erriora jateko hilabete apropoia izaten da, eta argazki hau han ateratzen zuen Orotak joandako kuadrilla batek.
Afaria lortu nahi baduzue hauetako **bosten izen-abizenak** asmatu beharko dituzue.

Bigarren galdera: **Zenbat urte eman zituen Demetrio Esnaolak Ruandan?**

Orain arte egin dugun bezala, aldi bat zozketazuk dugu asmatzaileen artean.

Afaria **Aizperro jatetxearen** izango da.

Erantzunak **urriaren 20rako** bidali behar ditziguzue, helbide honetara

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu lehiaketa, Hemiko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea Konbita Portuarrume izan da. Hau da berak eman zigun erantzuna:
Francisco Oliden, Jose Miguel Lasa, Juan Oliden, Jose Zaldua, Joakin Lertxundi, Justino Salsamendi,
Santiago Ibirimaga eta Gabriel San Sebastian.

Bigarren galderaren erantzuna: Hambil taldearen lehen saioa San Pedro egunean izan zen.

TIZPERRO

• jatetxea
• nekazal turismoa

Telefonoa: 83 54 19

OINARRIAK

- 1** 'Euskaraz Gazte' 4. literatur lehiaketaren helburua Orioko gazte-jendearen artean idazteko zaletasuna suspertzea da.
- 2** Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3** Lanak jatorrikoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4** Lehiaketan parte hartzen dutenek oriotarrak izan behar dute edo Orion bizi.
- 5** Lehiaketan parte hartzeko gutxienez hamalau urte izan behar dira, eta, gehienez, hogei ta bederatziz.
- 6** Lanen luzera librea izango da.
- 7** Lehiaketak bi modalitate izango ditu: Ipuina eta olerkia.
- 8 Lanak aurkezteko era**
Lanak makinaz idatziak aurkeztu beharko dira.
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituena eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 9 Sariak**
Ipuinen modalitatea
1. saria: 40.000 PTA
2. saria: 25.000 PTA
3. saria: 15.000 PTA
Bi akzesit, bakoitzaz 10.000 PTAKoa
- Olerkien modalitatea**
1. saria: 40.000.- PTA
2. saria: 25.000.- PTA
3. saria: 15.000.- PTA
Bi akzesit, bakoitzaz 10.000 PTAKoa
- Akzesiten bidez lortu nahi dena hau da:
lehenbiziko aldiz aurkezten direnei sarien bat irabazteko aukerak erraztea.
- 10** Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso modalitate bakoitzean.
- 11 Epaimahaia.** Epaimahaia Udaleko Euskara Batzordeko kide batek, KARKARA aldizkariko kide batek, Udal Euskara Zerbitzuko teknikariak eta Euskaltegiko irakasle batek osatuko dute.
Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.
- 12 Lanak aurkezteko tokia eta epea.** Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira **urriaren 31** baino lehen.
- 13** Orioko Udalak berea izango du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

